

## a) Ikasleen hezkuntza-premien eta -itxaropen kolektibo eta indibidualen diagnostikoa egitea

### *1. maila: Oinarrizkoa*

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioan ez dago ikasleen aurretiazko ezagutzak, premiak eta itxaropenak hautemateko faserik, edo asmoen adierazpen orokor bat dago.

### *2. maila: Garatze bidean*

Plangintzan jasota daude ikasleen aurretiazko ezagutzak, premiak eta itxaropenak hautemateko prozedurak. Diagnostikoa egiteko erabiliko diren prozedura edo estrategiak aipatzen ditu. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen egoera pertsonala ere hartzen du aintzat.

### *3. maila: Garatua*

Xeheki planifikatuta dauka ikasleen diagnostikoa egiteko prozedura (ezagutzak, kompetentzien garapen-maila, premiak eta aurreikuspenak) bai ikasgela osoari begira, bai ikasle bakoitzari begira. Hasierako diagnostikoa egiteko epe, prozedura eta estrategia zehatzak ditu aurreikusita. Beste irakasle batzuekin koordinatzen da hasierako diagnostikoaren emaitzak aztertu eta lan-erabakiak hartzeko.

### *4. maila: Aurreratua*

Ikasle bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egiteko prozedura hezigarriak, original eta eraginkorrak erabili eta partekatzen ditu. Erreferentea da ikastetxe barruko eta kanpoko profesionalentzat.